2017-XII-11
Número **539.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Justizia politizatzen dute ideiak jazartzeko

**Espainiako Auzitegi Gorenak abenduaren 4an erabaki zuenez espetxean jarraituko dute Generalitateko kontseilari Oriol Junqueras eta Joaquim Forn zeinANC eta Omnium Culturaleko buruak, Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart ere. Erabaki honek agerian uzten du, beste behin, espainiar estatuan Justizia administrazioa zenbateraino dagoen politizatuta; zentzu honetan, bereziki deigarria izan zen jabetzea erabakia dagoeneko bezperan filtratu zitzaiela hedabide batzuri.**

**Politikoa izan zen 155. artikulua ezartzeko erabakia; politikoa da, halaber, epaile eta fiskalen bidez herri katalanaren erabaki demokratikoa baldintzatu nahi izatea: beldurra hedatuz egitasmo politiko jakin batzuk bultzatzeko askatasuna mugatu nahi dute. Gorenaren erabakia ez da politika judizializatzearen ondorio, justiziaren politizazioarena baizik, helburua Katalunian eta Estatu guztian aldebakarreko inboluzio agenda inposatzea baita.**

**Testuinguru honetan, ELAren ordezkaritza bat Generalitate presidente Carles Puigdemont-ekin bildu zen azaroaren 30ean. ELAk bere elkartasuna adierazi nahi izan zien President zilegiari zein erbestean dauden gainontzeko kontseilariei. Lagun hauen egoerak agerian uzten du ere Espainiako gobernuak Kataluniako ordezkari politikari zilegien aurka daraman errepresioa.**

**Gainera, ELAren ordezkaritza batek ere parte hartu zuen abenduaren 7an Bruselako kaleak bete zituen *manifestazioan. Europa esnatu, demokrazia Kataluniarentzat* izan zen leloa. ELAk etorkizunean ere Kataluniako herriarekin egongo da. Euren borroka gure borroka ere badelako.**




### Las tres federaciones profesionales –Zerbitzuak, Gizalan e Industria eta Eraikuntza– celebrarán sus congresos los días 12, 14 y 19 de diciembre

# PRECARIEDAD, SALARIOS Y GÉNERO, LOS TRES EJES

Las tres federaciones profesionales de ELA –Zerbitzuak, Gizalan e Industria eta Eraikuntza– celebrarán sus Congresos los días 12, 14 y 19 de diciembre respectivamente. En la presentación de los tres congresos, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, subrayó que serán tres los ejes principales. "Son muchos los retos que tenemos para los próximos años, pero destacaría tres: la lucha contra la precariedad, lograr incrementos salariales que permitan recuperar el poder adquisitivo perdido durante la crisis y terminar con la discriminación de género en los centros de trabajo". Las tres personas que actualmente ocupan la secretaría general de las Federaciones (Maricruz Elkoro –Zerbitzuak–, Igor Eizagirre –Gizalan– y Unai Martínez –Industria eta Eraikuntza–) vuelven a presentarse a la reelección en el cargo.



**De izquierda a derecha Miren Zubizarreta, Mirari Irure, Igor Eizagirre, Adolfo Muñoz, Maricruz Elkoro, Unai Martínez y Luis Fernández en la presentación de los tres congresos federales celebrada el 6 de diciembre en Bilbao.**

### ZERBITZUAK.
### 12 DE DICIEMBRE. IRUÑA

**Out inor ez. Indarberritzen.**
**¡Por un empleo de primera!**

El primer congreso federal será el martes 12 de diciembre en el Planetario de Pamplona. Maricruz Elkoro destaca que Zerbitzuak pretende ser un referente en la lucha contra la pobreza, la precariedad y la desigualdad. "En esa lucha hay que incluir diagnósticos y análisis desde la perspectiva de género: la precariedad y la desigualdad afectan sobre todo a las mujeres. Otros aspectos importantes son la lucha contra la creciente estatalización de la negociación colectiva –los convenios estatales solo traen precariedad y miseria laboral–, la subcontratación –tanto en las empresas privadas como en públicas–, y el outsourcing o externalización de servicios".

En este sentido, Elkoro destaca que la gran mayoría de congresistas –el 70% de un total de 190 personas– son mujeres.

### GIZALAN.
### 14 DE DICIEMBRE. GASTEIZ

**GuztiONA indarberritzen.**

El siguiente congreso federal será dos días más tarde en el Palacio Europa de Gasteiz. En total participarán 231 delegados y delegadas en el congreso, con una participación mayoritaria de mujeres. Igor Eizagirre destaca que entre los objetivos que se plantea la Federación de Servicios Públicos están la lucha contra los recortes impuestos por los gobiernos de Iruñea y Gasteiz, así como la defensa de los servicios públicos ante las políticas de privatización puestas en marcha por las diferentes administraciones.

"La pérdida de empleo público y la creciente temporalidad son también problemas a los que se pretende hacer frente en los próximos años. La lucha de las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia supone un referente, en la medida en que ha sido protagonizada por mujeres que ha luchado por la dignificación de sus condiciones laborales en un sector feminizado".

### INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA.
### 19 DE DICIEMBRE. DONOSTIA

**Langile indarra, aurrera!**
**¡A por lo nuestro!**

Por último, Industria eta Eraikuntza tiene su cita en el Kursaal. Unai Martínez destaca que "la federación se ha planteado para los próximos años recuperar lo perdido durante los años de crisis. Para ello planteamos seguir haciendo una negociación colectiva ofensiva, luchando por convenios que pongan freno a la reforma laboral y la precariedad, con incrementos salariales importantes y reducciones de jornada. Otro de los temas que se abordarán en este congreso será el futuro de la industria".

"Por otra parte, –añade– en el sector de la construcción la aplicación de los convenios sigue siendo un reto para la federación".



**Aurrera jarraitzen du lan baldintzak hobetu eta kalitatezko hezkuntza sistema publiko bat eraikitzeko ELA, LAB eta Steilas sindikatuek martxan jarritako mobilizazioek**

# GREBA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASUNTZA PUBLIKOAN




Ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritza azken urte luzeetan inposatzen ari den murrizketak eta hezkuntza politika errotik aldatzea eta, honek guztiak eragindа, egungo hezkuntza publikoan sufritzen ari garen egoerari buelta ematea. Horregatik, ikasturte honetan ere, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek greba eta mobilizazio dinamika mantentzea erabaki zuten.

Abenduaren 12a mugarri izango da mobilizazio dinamika honen baitan; izan ere egun horretan greba deitu zen unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan. (Oharra: *Astekaria* hau bezperan itxi zen).

ELAk irakaskuntzan duen arduradun Xabi Irastorzak azpimarratzen duenez, "orain arte Eusko Jaurlaritzak ez du gure proposamenen inguruko benetako negoziazio asmorik agertu. Horregatik mobilizatu beste aukerarik ez digute uzten. Ikasturtea hasi zenetik egin ditugun mobilizazio guztiek –greba eta lanuzte deialdiak barne– jarraipen oso zabala izan dute. Espero dugu abenduaren 12ko deialdiak ere babes oso zabala izatea".

Bestalde, Irastorzaren ustez Eusko Jaurlaritzaren balizko Hezkuntza Ituna lantzeko prozedurak ez du behar adinako berme demokratikorik. "Betoa jarri diete hainbat gairen eztabaidari, eta hori onartezina iruditzen zaigu. Gainera, aurkezturiko prozesuak eduki eta prozeduraren inguruko gabezia larriak ditu".

"ELAk ez du parte hartuko ezkuntza eragileekin elkarrizketa, parte-hartze eta adostasun itxura ematea helburu duen prozesu honetan. Izan ere, prozesu horretan ez zaio erantzungo egungo hezkuntzaren egoerari, eta modu berezian hezkuntza publikoaren egoera larriari".




## MOVILIZACIONES EN LOS CENTROS DE ENSEÑANZA DE INICIATIVA SOCIAL

Tras casi 6 años y 36 mesas negociadoras las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA no han respondida de manera alguna a las reivindicaciones sindicales. Ante la estrategia de dilatar la negociación sin contenido, todos los sindicatos con representación en los colegios concertados de la CAPV –ELA, LAB, Steilas, CCOO y UGT– realizaron el 5 de diciembre una comparecencia pública en la que anunciaron su decisión de romper la mesa y emprender movilizaciones.

Xabi Irastorza, responsable de ELA en enseñanza, destaca que "en la medida en que las patronales estén dispuestas a llenar de contenido la mesa estaremos preparados para negociar nuevamente. Pero mientras esto no se dé no nos dejan más camino que la movilización para avanzar en nuestras condiciones laborales y en la calidad educativa. Y es que, como hemos dicho en numerosas ocasiones, unas buenas condiciones laborales y la calidad educativa van de la mano ya que sin la primera es imposible la segunda".

Las primeras movilizaciones serán el 13 de diciembre en Bilbao –12:00, delante del colegio Jesuitas– y el 19 de diciembre –17:30, concentraciones en Bilbao (plaza Indautxu), Donostia (ante la sede de Kristau Eskola) y Gasteiz (delante del colegio Marianistas)–.

**La contundente respuesta de la plantilla ha sido clave para conseguir que la dirección de la multinacional retire el expediente**

# SIEMENS GAMESA RETIRA EL EXPEDIENTE DE EXTINCIÓN DE EMPLEO




El 4 de diciembre la dirección de la multinacional Siemens Gamesa trasladó a las y los representantes sindicales la retirada del Expediente de Extinción de Empleo por el que pretendía despedir a 272 trabajadores y trabajadoras en Hego Euskal Herria. ELA considera que ha sido la movilización y el rechazo frontal de la plantilla ante esta decisión lo que ha motivado que la multinacional de marcha atrás en sus planes.

Sin embargo, Unai Martínez, secretario general de la federación Industria eta Eraikuntza, considera que hay motivos para que la plantilla esté preocupada, como, por ejemplo, la evidente falta de rumbo en la dirección de la empresa.

"Esta situación se ha acentuado tras el proceso de absorción de Gamesa por parte de Siemens. En unos pocos meses se ha pasado de trasladar las bondades de la absorción, garantizando el arraigo de Gamesa, al desmantelamiento de la dirección anterior y al anuncio de despidos, sin justificación alguna".

Martínez exige que se corrija el rumbo errático de los últimos meses. "Creemos que es el momento de afianzar un plan industrial, que garantice el futuro de la compañía y descarte por completo la pérdida de empleo. Dicho esto, la firmeza de las y los trabajadores en la defensa de los puestos de trabajo y de las condiciones laborales nos marca claramente que ese debe ser el camino a seguir en el futuro".

# LABURREAN / BREVES



## • Akordioa Euskadiko Orkestra Sinfonikoan

ELA eta Euskadiko Orkestraren zuzendaritzak akordioa sinatu zuten abenduaren lehenean; horren ondorioz langileek amaiera eman zioten azaroaren 18an hasi zuten greba eta mobilizazioei. ELAk oso irakurketa positiboa egiten du akordioaren inguruan, Euskadiko Orkestran zegoen prekarietatearekin amaitzeko aukera emango duelako.

Akordioa langileen mobilizazioari esker izan da soilik posible, eta hasieratik jarri ziren helburuak bete direla azpimarratu beharra dago: enpleguaren bermea eta langileen egonkortasuna.

## • Greba mugagabea Gipuzkoako garbiketa eta zabor bilketa alorrean

Sektorean ordezkaritza duten sindikatuek deituta, Gipuzkoako kale garbiketa eta zabor bilketako langileek greba mugagabea hasiko dute abenduaren 20an. Deialdiaren helburua azpikontratatutako zerbitzu honen lan-baldintzak duinduko dituen akordio bat lortzea da.

Eskaeren artean hutsuneak betetzeko araudia, KPlaren gaineko soldata igoerak eta ultraaktibitatea bermatzea daude, besteak beste. ELA sektoreko sindikatuko nagusia da, ordezkaritzaren %63arekin.




## • Gipuzkoako Aldundiak ez du Enplegu Publikoaren Eskaintza negoziatu nahi

ELAk Gipuzkoako Foru Aldundian duen arduradun Xabier Udabek salatzen duenez, argi geratu da Aldundiak ez duela 2017rako iragarri duen Enplegu Publikorako Eskaintza (EPE) negoziatzeko inolako asmorik. "Agerikoa da Aldundiak legea urratu duela, EPE hori ez negoziatzeagatik eta ez hitzartzeagatik. Argi geratu da Gobernantza diputatuaren jarrera: herritarren aurrean negoziazio- eta gardentasun plantak egitea, baina Aldundiaren barruan legea saihestu, alde bakarreko erabakiak hartu eta ezarpenaren bidetik jokatzea".

Udaberen arabera EPE honek ez du balio behinbehinekotasunarekin amaitzeko. "Aldundiak duen bitartekotasun-tasa eskandaluzkoa da, %35ekoa. Gaurko egunean 661 lanpostu hutsik daude, ez aipatzearren programetan aritzen diren bitarteko langileak, egitura-postuetan aritu beharko zirenak. Ba, egoera honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 41 plazako EPE bat argitaratu du, negoziatu gabe, 620 postu hutsak finkatu gabe utziz. Hau guztiagatik Enpresa Batzordeak helegitea jarri du epaitegietan".

## • Movilizaciones en el sector de Oficinas y Despachos de Bizkaia

ELA y LAB han iniciado un calendario de movilizaciones en el sector de Oficinas y Despachos de Bizkaia. El objetivo de estas movilizaciones es denunciar la falta de voluntad negociadora de la patronal CEBEK y lograr un acuerdo que mejore las condiciones laborales y de vida las y los trabajadores del sector.

El 15 de noviembre CEBEK trasladó a la parte social una propuesta que en opinión de Iñaki Oliden, responsable de ELA en el sector, únicamente se puede catalogar como una burla. "Que tras 8 meses de negociaciones y 10 reuniones nos planteen lo que nos plantearon el día 15 de noviembre significa que se están burlando de quienes trabajamos en el sector. Visto lo visto solo nos han dejado una opción: movilizarnos y luchar en la calle por dignificar nuestro sector".

Esta primera tanda de movilizaciones culminará el 1 de febrero, día en el que está convocada una jornada de huelga. "Lo que está claro, –añade Oliden–, es que no pararemos hasta lograr nuestro objetivo".




## • Por el derecho a trabajar en euskera

Con motivo del 3 de Diciembre —Día Internacional del Euskara—, ELA quiso reivindicar el derecho que asiste a la clase trabajadora de Euskal Herria a trabajar y vivir en euskara. Además, hizo un llamamiento a la Administración y a las patronales para que den pasos efectivos de cara a garantizar los derechos lingüísticos de los trabajadores/as en sus centros de trabajo.

ELA quiere mostrar su honda preocupación por los datos de la encuesta sociolingüística publicada este año. En efecto, si en determinados territorios de Euskal Herria está descendiendo el conocimiento de euskara, en otros donde el conocimiento avanza, lo que retrocede es el uso. Se puede constatar aquí que, lo que sucede con otros derechos sociales y económicos, sucede también en la esfera de los derechos lingüísticos, y no es otra cosa que los efectos de la individualización. Las campañas de apoyo y promoción que periódicamente emprenden las distintas administraciones basan invariablemente el uso de nuestro idioma en la voluntad de cada cual, como si la utilización de la lengua dependiera sólo de nosotros y nosotras.

## • ELA, primera fuerza sindical en la composición de la mesa negociadora del convenio del metal de Navarra por primera vez

El 1 de diciembre se compuso la mesa negociadora del convenio del metal de Navarra. Una mesa en la que por primera vez ELA es el primer sindicato en representatividad, con el 30,32%. Esto supone que nuestro sindicato ha crecido más de 3,46 puntos desde la anterior negociación, en 2014.

De cara a la negociación, ELA considera prioritario que el próximo convenio del metal garantice la subrogación a todos los trabajadores y trabajadoras de las subcontratas. Cada vez son más las empresas que deciden subcontratar diferentes actividades a otras empresas, de tal forma que los trabajadores y trabajadoras de las subcontratas tienen el riesgo de perder su puesto de trabajo al perder su empresa la contrata. El próximo convenio del metal debe dotar de estabilidad a esos colectivos garantizando la subrogación.

Además, es prioritario neutralizar los efectos más regresivos de la reforma laboral, incrementos salariales por encima del IPC y la eliminación de las dobles escalas salariales.

## • ELAk Ertzaintzan hirugarren indarra izaten jarraitzen du

Azaroaren 30ean hauteskunde sindikalak egin ziren Ertzaintzan; ELAk 9 ordezkari –Gipuzkoan 4, Bizkaian 3 eta Araban 2– eta 859 bozka lortu zituen. Emaitza hauekin ELA hirugarren indar sindikala izaten jarraitzen du. ELA-Ertzantzako ordezkariek gure hautes-zerrendei emandako babesa eta atxikimendua eskertu nahi ditu.

"Emaitza honek are eta konbentzimendu handiagoz berretsi egiten du polizia eredu demokratikoaren apustua. Polizia eredua herritarren zerbitzukoa, gizartean integratua eta pertsona guztien eskubide guztien errespetuzkoa izan dadin borrokatzen jarraituko dugu. Era berean, lanean jarraituko dugu Ertzaintzan eta zerbitzu publikoetan oro har, lan baldintzatan hainbesteko kaltea eragiten diguten erabaki politikoak errotik aldatzeko. Datozen urteetan ere ELAk bide horretan jarraituko du, konfederala eta klasekoa den aukera berretsiz".

## • "Eusko Jaurlaritza, propaganda asko eta enplegu gutxi"

Eusko Jaurlaritzak 4.583 lanposturentzako Enplegu Publikorako Eskaintza iragarri zuen iragan astean. Zerbitzu Publikoetako arduradun Igor Eizagirrek salatzen duenez, gai honetan ere Eusko Jaurlaritzak propaganda baliatzen du oso bestelakoa den errealitate bat ezkutatzeko. "Azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan suntsitutako enplegu publikoa ez da berreskuratuko eta behin-behineko tasak bere horretan mantenduko dira. Eusko Jaurlaritzaren iragarpena propaganda hutsa da. Iragarritako kopuru horretatik –4.583 plaza– gehienak aurrez egindakoak dira. Soilik 440 plaza daude orain arte publiko egin ez direnak, Administrazio Orokorreko 140 eta Ertzaintzako 300; beste guztiak onartuak eta martxan daudenak dira".

Legegintzaldi amaierara arte –2020. urtea– Eusko Jaurlaritzak 13.500 plaza berri ere aurreratu zituen. Eizagirreren ustez iragarpen honekin Jaurlaritzak ezkutatu egin nahi du azken urteetan suntsitu diren milaka lanpostu publikoak. "17.500 lanpostu suntsitu dira 2010etik hona. Gainera, ezin dugu ahaztu legealdia amaitu bitartean 9.000 lagunek erretiroa hartuko dutela. Gaur egun 35.000 langile daude aldi baterako edo bitarteko kontratuekin; proposamen honekin behin-behinekotasun tasak ez dira inola ere %33tik jaitsiko. Datuek argi erakusten digute EAEn suntsitutako enplegu publikoa ez dela berreskuratuko eta behin-behineko tasak berean mantenduko direla".

## • #YoTambiénSoyLolita



Aurora Lolita Chávez Ixcaquic es una activista indígena y feminista guatemalteca. Lolita está en Euskal Herria desde junio como refugiada provisional, tras sufrir un ataque con armas debido a su militancia. Por este motivo, desde la Marcha Mundial de las Mujeres de Euskal Herria se ha puesto en marcha una campaña de apoyo y solidaridad. ELA es parte de esta iniciativa, y también se suma a esta campaña.

Por ello anima a la militancia a hacer una aportación económica en la siguiente cuenta, poniendo **Lolita**: **ES14 3035 0134 441340041849** El objetivo es recaudar dinero para sufragar su estancia entre nosotras, además de otros gastos como los servicios del abogado que lleva su defensa..

astekaria

# 11.000 LAGUN PARISEN PRESOEN ESKUBIDEEN ETA BAKEAREN ALDE




**B**akearen Artisauak deituta 11.000 euskal herritar elkartu ziren Parisen abenduaren 9an *Orain presoak* lelopean antolatu zen mobilizazioan. ELAren ordezkaritza zabal batek ere parte hartu zuen mobilizazioan. Antolatzaileek euskal presoak eta familiak hunkitzen dituen salbuespen erregimenarekin bukatzea eskatzea helburu zuen ekimen honen oso balorazio positiboa egin zuten, aurreikuspen guztiak aise gainditu zirelako.

"Hastapeneko gure helburua Parisen 5.000 jende biltzea zen. Azkenean, kopuru horren bikoitza baina gehiago bildu gara. Manifestazioaren lehen lerroan 200 hautetsi eta gizarte zibilaren ordezkari izan dira, Euskal Herriko auzapez eta eragile ugari eta Frantziako beste pertsonalitate batzuk. Ezinezkoa da antolatu eta mobilizatu den aniztasun politikoa baina gehiago egotea. Euskal Herriko gai bati buruz Frantzian ikusi den mobilizazio handiena izan da".

ELAko ehunka militante ere presente egon ziren Pariseko karriketan. ELAko idazkari nagusiak –Adolfo Muñoz– manifestazioaren aurretik egindako adierazpenetan azpimarratu zuenez, Aieteko Konferentziatik sei urte pasatu direnean eta ETAren armagabetzearen adierazpenetik ia zortzi hilabete iragan direnean, euskal presoen egoerak konpondu gabe jarraitzen du. "Bada garaia behingoz auzi horri heltzeko; ezinbestekoa da euskal presoak Euskal Herriratzea gatazka konpondu ahal izateko".

Muñozek Ipar Euskal Herriko gizarte zibilaren lana goraipatu nahi izan zuen. "Bakegileen bidez haiek desblokeatu zuten armagabetzearen afera. Hautetsien rola eta lana ere txalotu beharrean gara. Gure nahia eta haiena normalizazio politikoaren agenda eta presoena desblokeatzea da". Iparraldean sortu den kultura politikoa ere izan zuen ardatz Muñozek. "Hegoaldeko begiekin ikusten badugu, alde handiak daude, lehentasunak beste toki batzuetan daude. Gai hau lehentasunezkoa izateko ezinbestekoa da gizartea mugitzea, eta gu horretan gaude. Hegoaldetik inbidiaz begiratzen dugu Iparraldean lortu dutena".



*Miles de personas participaron el 9 diciembre en París en la manifestación convocada por las y los Artesanos de la Paz bajo el lema 'Orain presoak'. Es imprescindible que los presos y presas vascas vuelvan a casa para la solución del conflicto*

# QUIEREN QUE LOS IMPUESTOS LOS PAGUEN SÓLO LOS TRABAJADORES Y TRABAJADORAS




**L**os máximos responsable de ELA y LAB realizaron el 27 de noviembre una comparecencia pública para realizar una lectura conjunta de lo que supone la nueva rebaja del Impuesto sobre Sociedades acordada por el PNV, PSE-EE y PP.

En opinión de ambos sindicatos la rebaja del Impuesto sobre Sociedades –que pasará del 28% al 24%– es un nuevo regalo a la patronal y perpetúa las políticas de recortes. "La rebaja del Impuesto sobre Sociedades anunciada es injusta y antisocial. Es injusta porque supone un nuevo paso en la profundización de un sistema fiscal que hace recaer la recaudación sobre las rentas de trabajo, mientras que la aportación de las rentas empresariales y del capital ha disminuido con fuerza en los últimos años. Y es antisocial porque renunciar a una parte de los ingresos supone en la práctica seguir apostando por las políticas de recortes en los servicios públicos y las prestaciones sociales".

En opinión de ELA y LAB es evidente que existe un acuerdo de fondo entre el PNV, PP y PSE para aplicar las políticas neoliberales que están aumentando las desigualdades sociales y la pobreza.

Esos acuerdos se visualizan en las votaciones que se producen en las materias que determinan las condiciones de vida y de trabajo, como son los presupuestos y la fiscalidad.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
**www.ela.eus**